Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

2786

AGINDUA, 2009ko apirilaren 21ekoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Llona Badiola Hostelería Artxanda Fundazioa eta bere patronatuak emandako ahalordea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeari buruzkoa.

Bilboko (Bizkaia) Llona Badiola Hostelería Artxanda Fundazioa eta bere Patronatuak emandako ahalordea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskabidearen espedientea ikusi da. Hona hemen

AURREKARIAK

1.– Bizkaiko Ostalaritza Enpresaburuen Elkarteak, Jesús Llona Larrauri jaunak, Garbiñe Ingartze Badiola Fariña andreak eta Holding Hostelería, S.A.k Llona Badiola Hostelería Artxanda Fundazioa eratu dute, 2008ko maiatzaren 9an Bilboko Notarioen Elkargoko Ramón Múgica Alcorta notarioaren aurrean Jesús Llona Larrauri jaunak eta beste batzuek egindako eskritura publikoaren bidez (823 protokolo-zenbakia).

Eskritura publiko hori zuzendu egin zen, fundazioaren eraketa osatzeko 2009ko martxoaren 6an notario beraren aurrean (301 protokolo-zenbakia) egindako beste eskritura publiko baten bidez.

Eratzeko eskritura publikoak, gainera, Ángel Tomás Gago Santamaría jaunari fundazioaren patronatuak emandako ahalordea jasotzen du, bertan jasotako eskumen eta hedapenarekin.

2.– Llona Badiola Hostelería Artxanda Fundazioaren helburua estatutuen 3. artikuluan dago jasota:

Fundazioaren xedeak dira euskal sukaldaritza, oro har, eta bereziki Bizkaiko sukaldaritza ezagutaraztea, babestea eta garatzea, eta, gainera, giza osasunerako onuragarriak diren dietetika eta nutrizio-ohiturak sustatzea.

Xede horiek betetzeko, helburu hauek ezarri dira:

a) Funts bibliografikoak eta dokumentalak zaindu, katalogatu eta aprobetxatzea.

b) Euskal eta Bizkaiko sukaldaritzaren arloan azterlanak eta ikerketak egitea.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

2786

ORDEN de 21 de abril de 2009, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la denominada Llona Badiola Hostelería Artxanda Fundazioa, así como el apoderamiento otorgado por su patronato.

Visto el expediente por el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la denominada Llona Badiola Hostelería Artxanda Fundazioa, de Bilbao (Bizkaia), así como el apoderamiento otorgado por su Patronato, sobre la base de los siguientes:

ANTECEDENTES DE HECHO

1.– Por la Asociación de Empresarios de Hostelería de Bizkaia, D. Jesús Llona Larrauri, Dña. Garbiñe Ingartze Badiola Fariña y Holding Hostelería, S.A. se ha constituido la Fundación denominada Llona Badiola Hostelería Artxanda Fundazioa, mediante Escritura pública de constitución de la Fundación denominada Llona Badiola Hostelería Artxanda Fundazioa, otorgada el 9 de mayo de 2008 por D. Jesús Llona Larrauri y otros, ante el Notario de Bilbao, D. Ramón Múgica Alcorta, número 823 de su protocolo.

Esta Escritura pública ha sido rectificada por otra Escritura pública de complemento de constitución de Fundación otorgada el 6 de marzo de 2009, ante el mismo Notario, número 301 de su protocolo.

La Escritura pública de constitución recoge asimismo el apoderamiento otorgado por el Patronato de la Fundación a favor de D. Ángel Tomás Gago Santamaría, con las facultades y extensión recogidos en la misma.

2.– El fin fundacional de la denominada Llona Badiola Hostelería Artxanda Fundazioa, viene establecido en el artículo 3 de su norma estatutaria:

Los fines de la Fundación consisten en el apoyo al conocimiento, preservación, y desarrollo de la cocina vasca, en general, y de la cocina vizcaína, en particular, así como el fomento de hábitos dietéticos y nutricionales beneficiosos para la salud humana.

Para el logro de los fines señalados, se establecerán los siguientes objetivos:

a) La conservación, catalogación y aprovechamiento de sus fondos bibliográficos y documentales.

b) El estudio y la investigación en el ámbito de la cocina vasca y de la cocina vizcaína.

c) Giza dietetika eta nutrizioaren nahiz nutrizio-ohituren arloan azterlanak eta ikerketak egitea.

d) Euskal eta Bizkaiko sukaldaritzaren dokumentazio-zentroa sortzea, arlo horri lotutako dokumentuak bilduko dituena.

e) Xedeekin lotutako dibulgazio-ekintzak antolatzea.

f) Bere funtsen gaineko katalogoak eta monografiak prestatu eta argitaratzea, aipatutako gaiari buruzko ikerketa eta liburuen argitalpena bultzatzea, eta oro har, argitalpen horien edukiari buruzko jarduera didaktikoak garatzea.

g) Lankidetza-harremanak izatea beste fundazio, elkarte, pertsona edo entitate publiko edo pribatu batzuekin, indarrean dagoen legedian ezarritakoaren arabera.

h) Fundazioaren helburuak lortzeko lagungarri izan daitezkeen bestelako jarduerak.

Helburu horiek zerrendatzeak ez du esan nahi dendenak nahitaez bete behar direnik eta ez du haien artean lehentasun-hurrenkerarik ezartzen.

Fundazioak bere helburu eta jarduerei beharrezko zabalkundea emango die, horien onuradun edo interesatu izan daitezkeenak jakinaren gainean egon daitezen.

3.– Fundazioaren egoitza, fundazioaren estatutuetako 4. artikuluan adierazten denez, hau da: Enekuri-Artxanda errepidea, 3. kilometroa, Artxandako Goi Mailako Ostalaritza Eskolaren eraikina, Bilbao (Bizkaia).

4.– Hasierako dotazioa bederatzi mila (9.000) eurokoa da, eta kopuru hori ordaindu dela jasota geratu da erregistro-inskripzioaren espedientean, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 37.1.c artikuluak.

Ondarea askitzat jotzen da fundazioaren lehenengo programa lortzeko. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 9. artikuluak hala eskatuta, aditu independente batek egindako bideragarritasuneko ekonomia-azterketak hori erakusten du; azterketa hori, bestalde, administrazio-espedienteari erantsi zaio.

5.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, Fundazioaren Estatutuetako 17. artikuluan jartzen duen moduan.

c) El estudio y la investigación en el ámbito de la dietética y la nutrición humana y de los hábitos nutricionales.

d) La creación de un centro de documentación de la cocina vasca y la cocina vizcaína en el que se reúnan todo tipo de documentos relacionados con las mismas.

e) La organización de actos divulgativos acordes con sus fines.

f) La elaboración y publicación de catálogos y monografías de sus fondos, así como el fomento de la investigación y la promoción de la publicación de obras referentes a la materia y, en general, el desarrollo de una actividad didáctica respecto de su contenido.

g) El establecimiento de relaciones de cooperación con otras Fundaciones, Asociaciones, personas o entidades públicas o privadas en el marco de lo dispuesto en la legislación vigente.

h) Cuantas otras actividades complementarias conduzcan al logro de los objetivos de la fundación.

La enunciación de los citados fines no entraña obligación de atender a todos y cada uno de ellos, no les otorga orden de prelación alguno.

La Fundación dará publicidad suficiente a sus objetivos y actividades, a fin de que sean conocidas por sus eventuales beneficiarios e interesados.

3.– El domicilio fundacional, conforme dispone el artículo 4 de los Estatutos fundacionales, queda fijado en Bilbao, carretera Enekuri-Artxanda, Kilómetro 3, edificio Escuela Superior de Hostelería de Artxanda.

4.– La dotación inicial asciende a la cantidad de nueve mil (9.000) euros, cuyo desembolso es acreditado documentalmente en el expediente de inscripción registral, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37.1.c) del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

La dotación patrimonial se acredita como suficiente para la consecución del primer programa de actuación fundacional, conforme se desprende del Estudio Económico de Viabilidad elaborado por experto independiente, que ha sido aportado al expediente administrativo en cumplimiento del citado artículo 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

5.– La representación, administración y gobierno de la Fundación se confía al Patronato, cuyos miembros desempeñarán sus cargos con carácter gratuito, de acuerdo con el artículo 17 de los Estatutos fundacionales.

6.– Fundazioa eratzeko eskrituran ezarritakoaren arabera, hauek izango dira patronatuko kide:

Lehendakaria:	Jesús Llona Larrauri jauna
Lehendakariordea:	Juan Manuel Olavarrieta Palacio jauna, Bizkaiko Ostalaritza Enpresaburuen Elkarteko lehendakaria
Idazkaria:	Aspiazu Peña jauna, Bizkaiko Ostalaritza Enpresaburuen Elkarteko idazkaria; zeinak, karguan bere ordez jarduteko, Ángel Tomás Gago Santamaría jauna izendatzen baitu
Kideak:	Sánchez Díez jauna, Holding Hostelería SA elkarteko lehendakaria
	Garbiñe Badiola Fariña andrea

6.– El Patronato inicial, conforme se establece en la escritura de constitución fundacional estará integrado por,

Presidente:	*D. Jesús Llona Larrauri*
Vicepresidente:	*Presidente de la Asociación de Empresarios de Hostelería de Bizkaia, D. Juan Manuel Olavarrieta Palacio*
Secretario:	*Secretario de la Asociación de Empresarios de Hostelería de Bizkaia, D. Aspiazu Peña, que designa a D. Ángel Tomás Gago Santamaría para que ejerza el cargo en su nombre*
Vocales:	*Presidente de la sociedad Holding Hostelería, S.A., D. Sánchez Díez*
	Dña. Garbiñe Badiola Fariña

Guztiek onartu dituzte dagozkien karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari dagokio fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala agintzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 40. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 4. artikuluan.

Bigarrena.– Horretarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako eskakizunak.

Todos y cada uno de ellos han aceptado sus respectivos cargos conforme las formas previstas en el artículo 12.1 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– Corresponde al Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social dictar, mediante Orden, la resolución del expediente de inscripción de constitución de la Fundación, en virtud de lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y el artículo 4 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Segundo.– El presente expediente ha sido promovido por persona legitimada para ello, y al mismo se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos señalados en los artículos 6, 7 y 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y 36 y ss. del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Lege eta arau hauek ikusi dira: indarrean dagoen Konstituzioa; Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretua, eta orokorrean aplikatzekoak diren gainerako arauak. Ondorioz,

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Gaur, F-242 zenbakiaz, Bilboko (Bizkaia) Llona Badiola Hostelería Artxanda Fundazioa delakoa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, bai eta patronatuko hasierako osaera ere. Patronatuko kideak seigarren aurrekarian aipatzen dira eta guztiek berariaz onartu dituzte beren karguak.

Bigarrena.– Fundazio hori, dituen helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 3. sekzioan inskribatzea, kultura, gazteria eta kirolen fundazioen sekzioan hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Patronatuak Ángel Tomás Gago Santamaría jaunari emandako ahalordea, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agindua ematea, bertan jasotako ahalmen eta hedapenarekin.

Laugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio bidea amaitzen du. Horren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 21a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

Vistos la Constitución vigente, el Estatuto de Autonomía del País Vasco, la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, el Reglamento del Protectorado de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 100/2007, de 19 de junio, el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio, y demás normas de general y pertinente aplicación.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,

RESUELVE:

Primero.– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, con esta fecha y bajo el número de registro F-242, de la constitución de la denominada Llona Badiola Hostelería Artxanda Fundazioa, de Bilbao (Bizkaia), así como de la composición inicial del Patronato integrado por los miembros que figuran en el antecedente sexto, quienes han aceptado expresamente sus cargos.

Segundo.– Clasificar a dicha Fundación, en virtud de sus fines, en la Sección 3.ª del Registro de Fundaciones del País Vasco, relativa a las fundaciones culturales, juveniles y deportivas, conforme lo dispuesto en el artículo 2 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco.

Tercero.– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco del apoderamiento otorgado por el Patronato a favor de D. Ángel Tomás Gago Santamaría, con las facultades y extensión recogidos en la misma.

Cuarto.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante este Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso Contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de abril de 2009.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.